

## 3. maila (C1) | Azterketa idatzia | A eredua

Deiturak:

Izena:

NA:

Azterketa idatziak **bi zati** izango ditu:

- Irakurmena
- Idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. **2 ordu eta 30 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	10	20	1 h inguru
	...	...	...	...
	Idazmena	15	30	1 h 30 min inguru
	<b>Guztira</b>	<b>25</b>	<b>50</b>	<b>2 h 30 minutu</b>



## Irakurmena

### Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izanik, aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi erantzun zuzenari dagokion **letra** beheko laukietan.

— I. testua —

### Opari bikoitza

M aite dut liburuak oparitzea, eta oparitan liburuak jasotzea. Gaiztoaren batek esan lezake opari merkeak direla liburuak, baina ez da hori arrazoa: oparia egiteko edo hartzeko momentuan izaten den poz horri, irakurketak irauten duen bitartean izaten dugun sentsazioa erantsi behar zaio, eta gero lagunarekin liburuak komentatzean jasotzen duguna; hartara, irakurtzea gustatuz gero betiere, biderkatu egiten da opariaren balioa, eta oparigilearen eta hartzailearen arteko lotura.

Izenburuko opari bikoitza ez dut horregatik ipini, hala ere. Datozen egunotan, euskal idazle handi batek liburu bat ez, baizik eta bi kaleratuko ditu, opari bikoitza Miren Agur Meaberen literatura maite dugunontzat. Batek *Bitsa eskuetan* poema-sorta argitaratu berri diote egunotan. Orain hamar urte *Azalaren kodea* atera zutenetik askok itxaroten zuten itzulera. Hiru parte ditu liburuak. Lehena, *La vie en rose*, bere izatearen errepasso moduko bat da, bere mugak eta helburuak, nahi eta ezinak, eta baita bere buruaren berrespena eta hitzaren aldeko aldarria ere. Bigarrenak, *Harearen geriza*, amaren gaixotzea eta heriotza azaldu ostean, haren oroipena berritzen eta gaurkotzen du, modu samur baina ez inola ere melengan. Azkena, berriz, *Zapitxo intimoak*, love story baten kontaketa da, hasieratik amaitu arte; gozotik baino gehiago dauka garratzetik, baina batez ere gainezka egiten dioten pasioa eta benetakotasuna azpimarratuko nituzke.

Bigarren liburuak, pare bat aste barru plazaratuko dena, narrazio bat da, *Zazpi orduak*, izenekoa. Bertan, Doltsa deritzan kontalari bat herri batera iritsi, eta inguratzen zaion jendeari hasten zaio istorioak kontatzen eta bertsoak kantatzen. Kontakizunei darien aire

tradizional eta denboraz kanpokoak haur literaturako ipuin miresgarriak dakarzkigu gogora, Andersen edo Grimm anaiei arreba pixkor bat sortu balitzaie bezala, baina Meabek bere testuari eman dion dimentsio sinbolikoak, batetik, eta kalitate lirikoak, bestetik, gogoko koska batera igotzen dute obra hau, goi mailako literatur lana bihurtuz. Edukiari dagokionez, emakumetasunaren alderdi desberdinak ageri dira istorioetan barrena: inimizazioa, zailtasunei aurre egitea, eririkoe-tatik ikastea, maitasunaren ezitia eta samina, bizi-proiektu bat izatearen eta garatzearen garrantzia, bizitzaren azkenean beharra onartzen jakitea... Gutxi gorabehera, aurreko liburuko gai eta kezka berberak direla esan liteke (idazle guztiok bizpahiru obsesoren inguruan dantzan ibili ohi gara), baina helburu eta forma aldetik begi bistakoak dira desberdintasunak: poesia-liburuan ikuspegi errealista zen, garaikidea eta subjektiboa; honakoan, berriz, alegorikoa, atemporala eta kolektiboa. Interesgarria da, halaber, liburu bietako olerkiak konparatzea: *Bitsa*-n poesia modernoa daukagu, nolabait esanda, eta *Zazpi orduetan*, berriz, koplak herrikoien molde kantuetara jo du egileak; bartzuetan zein besteetan, dena den, nabarmena da idazkeraren dotoretzia, estiloaren fintasuna, irudien lanketa, sujerentzien aberastasuna eta, beharbada inportante-ena, irakurlearengan sortzen duen emozioa.

Horra, beraz, Miren Agur Meabek irakurle guztioi egiten digun eskaintza, opari bikoitza. Liburuaren bitartez bakarrik ez, egilea bera ezagutzeko zortea izan dugunontzat, berriz, areagotu egiten zaigu erregalia, mires-ten dugun artistari gaina hartzen baitio lagunak beti esku eta bihotz zabalez hartzen dituen pertsona maitak. Horregatik, eskerrik asko eman diguzun guzti-gatik. Bihotzean zauzkagu.

Xabier Mendiguren Elizegi  
*Deia, Ortzadar, 2010-10-09*

**1. Zergatik maite du Xabierrek liburuak oparitzea eta oparitan jasotzea?**

- a) Liburuak oparitu eta esker ona jasotzea opari bikoitza delako.
- b) Beti biderkatzen delako opariaren balioa, baita oparigilearen eta hartzailearen arteko lotura ere.
- c) Oparia egin, liburuak irakurri eta komentatzeak sortzen dizkiguten sententzioengatik.
- d) Liburuak oparitzeak berez dakarrelako bueltan liburuak jasotzea.

**2. Zein arrazoi du Xabierrek artikuluari *Opari bikoitza* izenburua jartzeko?**

- a) Iragan egunetan liburu bat barik, bi kaleratu izana Miren Agur Meabek.
- b) *Bitsa eskuetan* poema-sorta kaleratu eta *Zazpi orduak* narrazioa kaleratzeaz izatea Miren Agur Meabek.
- c) Laster poema-sorta bat eta narrazio bat kaleratzeko asmoaren berri izatea.
- d) Narrazioaren eta poema-sortaren tituluak *Bitsa eskuetan* eta *Zazpi orduak* izatea, hurrenez hurren.

**3. Zer dute komunean Miren Agur Meabek eta Andersen edo Grimm anaiek?**

- a) Meabek bere testuan agertzen dituen dimentsio sinbolikoa eta kalitate lirikoa.
- b) Hirurek idatzitakoak goi-mailako literatur lanak izatea.
- c) Haur literaturako ohiko ipuinei darian aire tradizional eta denboraz kanpokoak.
- d) Istorioak kontatzen eta poemak tartekatzen dituzten narrazioak idatzi izana.

**4. Nolakoak dira helburu eta forma aldetik Meaberen bi liburuak?**

- a) Berdintsuak dira helburu eta forma aldetik.
- b) Berdintsuak dira, biek ere ikuspegi errealista eta garaikidea baitute.
- c) Desberdinak dira, bigarrenean idazlea kezkatzen duten gaiak bestelakoak baitira.
- d) Desberdinak dira, bata ikuspegi errealista duelako eta besteak alegorikoa.

**5. Zergatik areagotzen zaigu erregalia Miren Agur Meabe ezagutzen dugunoi?**

- a) Idazle ona izateaz gain, bera ezagutzen dugunok abegitsua delako.
- b) Lagunekin beti abegitsua den pertsonari artista gailentzen zaiolako.
- c) Bi liburuak bera ezagutzeko aukera ematen digutelako.
- d) Irakurleak beti esku eta bihotz zabalez hartzen dituelako.

1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
-----	-----	-----	-----	-----



## Irakurmena

### Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izanik, aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi erantzun zuzenari dagokion **letra** beheko laukietan.

— 2. testua —

## Noizko nire genoma?

Giza genomaren zirriborroa 2001ean argitaratu zen eta sekuentzia osoa 2003an. Azken urtean, berriz, genomaren sekuentziazioen inguruan hainbat berri agertu dira; ez bakarrik espezie ezberdinetako genoma ugari sekuentziatu direlako, baizik eta, genoma anonimoak sekuentziatu beharrean, izen-abizenak dituzten genomak sekuentziatu direlako: Desmon Tuturen genoma, Watsonena, Craig Venterena... Are gehiago, bizirik dauden pertsonen genomak ez ezik, orain 4.000 urte Groenlandian bizi zen gizon baten genoma ere sekuentziatu dute. Horrez gain, minbizi-zelulen genomak, lerro zelularren genomak eta abar sekuentziatu dira. Sekuentziazioa erabat zabaldu eta demokratizatu da, eta orain diru pixka batekin (50.000 euro inguru) genoma bat sekuentziatu daiteke.

Gaur egungo teknologiarekin genomak sekuentziazioa ez da zaila; besterik da, aldiz, sekuentziatutako genomako informazioa erabilgarri bihurtzea. Hemendik denbora gutxira genomaren sekuentziazio hutsak garrantzia eta gaurkotatzea galduko du eta genomari buruzko beste ikerketa batzuek izango dute lehenetasuna: hala nola, genoma ezberdinen arteko konparazioetatik lortutako informazioak, baldin eta konparazio horietatik ezagutza orokorrak atera ahal badaitezke, eta, batez ere, osasunarekin erlazioa badute.

Alabaina, oraindik ere, genoma berri bat sekuentziazioaren denean notizia bilakatzen da, izan ere beti erakusten dizkigu gauza interesgarriak genomak.

Azken hilabeteetan, giza genomaren hiru sekuentziazio egin dira, eta puntako aldizkarietan argitaratu dira. Sekuentziatutako genoma multzo bakoitzak helburu bereziak eta desberdinak zituen.

Lehenengo ikerketan, Hego Afrikako bi pertsonaren genomak sekuentziatu ziren, bata Desmon Tuturena, eta bestea !Gubi izeneko boskimano batena. Genoma horien sekuentziazioaren helburua giza eboluzioari buruzko informazioa lortzea zen. Desmon Tutu eta !Gubi, nahiz eta herrialde berean bizi, oso jatorri ezberdinekoak dira.

Boskimanoena oso populazio berezia da, hainbat lanek erakutsi dutenez, beraiek baitira gaur egun dagoen giza populaziorik zaharrena. Horrez gain, aniztasun genetiko handiena duen populazioa ere bada. Bi genomaren arteko konparazioak erakutsi du oso alde handia dagoela boskimano eta bantuen artean. Are gehiago, !Gubi-ren genoma eta beste hiru boskimanoen genomak alderatu dira -horien kasuan genomaren sekuentzia zatiak dira konparatu direnak eta ez genoma osoak-, eta ikusi da boskimanoen artean dagoen aniztasun genetikoa jatorri europarreko eta asiarreko pertsonen artean dagoena baino handiagoa dela, nahiz eta kilometro gutxira bizi. Sekuentzien arteko konparazio horiek giza eboluzioaren inguruko informazioa emango digute, nondik nora mugitu garen, nola...

Antropologiarekin harremana duen beste genoma bat ere sekuentziatu da, duela 4.000 urte Groenlandian bizi izan zen gizaki batena hain zuzen ere. Eta sekuentziazioak ezustekoa erakutsi du. Groenlandian bizi izan zen pertsona hori Siberiako ekialdeko populazio batekoa zen. Horrez gain, DNAREN ezaugarrien arabera finkatu ahal izan da pertsona horrek begi marroiak zituela eta burusoila izateko arriskua zuela.

Azkenik, familia bateko lau kideren genomak sekuentziatu dira: aita, ama eta bi seme-alabenak. Bi helburu izan ditu azterketa horrek; bata gizakien meiosisetan zer gertatzen den aztertzea -non gertatzen diren erre-

konbinazioak, mutazio-tasa...-, eta bestea osasunarekin erlazionatutakoa. Familia horretako bi haurrek Miller sindromea zuten, eta sekuentziarioaren bidez finkatu nahi izan da zein gene eta zein mutazio izan daitezkeen Miller sindromearen sortzaileak.

Beraz, argi dago genomaren sekuentziarioak hainbat esparru berri zabaltu dituela; orain argitzeko geratzen dena da norantz joango den genomika. Helduko ote da norberaren genomaren sekuentzia ezagutzeko garaia? Urrun ote dago? Auskalo.

-----  
Asier Fullaondo, *Berria*, 2010/04/07 (moldatua)

— 2. testua —

**1. 2003tik hona, zein aldaketa ezagutu dugu giza genomaren sekuentziarioan?**

- a) 2003tik hona, hainbat genoma anonimo ezagutarazi dira.
- b) Minbizi-zelulak nola zabaltzen diren eta zein sekuentzia jarraitzen duten argitu da.
- c) Ohiko bihurtu da pertsona ezagunen genomak sekuentziatu direlako.
- d) 2001eko ikerketetan egindako zirriborroak osatu egin dira 2003tik aurrerakoetan.

**2. Testuaren arabera, zer espero daiteke etorkizunean?**

- a) Teknologia hemendik aurrerako ikerketa guztiak erraztea.
- b) Aurrerantzean aurkikuntza guztiak albiste bihurtzea.
- c) Lan gehiago egin behar izatea sekuentziatutako genomaren informazio osoa lortzeko.
- d) Sekuentziariotik harago, ikerketa hauek osasun arlora bideratzea.

**3. Zer frogatu dute lehen ikerketaren bidez?**

- a) Afrika eta Europako gizakien arteko aniztasuna uste baino handiagoa dela.
- b) Genomaren sekuentziak hurbiltasun geografikoarekin lotuta daudela.
- c) Boskimanoak Hego Afrikan zehar hara eta hona mugitu zirela.
- d) Ereku geografiko bereko biztanleen artean aniztasun handia dagoela.

**4. Zer ikasi dugu Groenlandian bizi izan zen gizakiari buruz?**

- a) Bere genomaren sekuentziarioak erakutsi du beste jatorri batekoa zela.
- b) Ezusteko handia izan da gizakia antzina Groenlandian izan zela jakitea.
- c) Antzinako gizakiaren itxura gaurko gizakiaren itxuraren antzekoa zela jakin dugu.
- d) Antropologoen duela 4.000 urte bizi izan zela erabaki dute.

**5. Zertan datza hirugarren giza genomaren inguruko azterketa?**

- a) Guraso eta seme-alaben arteko antzekotasunen berri eman digu.
- b) Genomikak zenbait gaixotasunen jatorria argitzen lagun diezagukeela erakutsi du.
- c) Ikerketa honen bidez Miller sindromearen berri izan dugu.
- d) Genomikak aurrerantzean zein bide hartuko duen esan digu.

1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
-----	-----	-----	-----	-----



### Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **hitz edo esaldi zati egokia** aukeratu behar duzu.

Idatzi bakoitzari dagokion **letra** ondoko laukietan.

### — 3. testua —

## Dibortzioa

Aldaketarena baino areago iraultzaren lekuko gara nire adin ingurukoak dibortzioaren kontu honetan. Eta, zorionez, gizartearen aldaketa handiarekin batera .....(1)....., errealitate sozialera egokitzena.

Gazteak ginela, ezkontza bizi guztirako zen. Tartean seme-alabak bazeuden zer esanik ez; eta gehienetan .....(2)..... seme-alabak. Nazionalkatolizismoan legez bestelakorik ezin zen, eta apaizek, familiak eta gizarteak presio ikaragarria egiten zuten gauzek halaxe iraun .....(3).....

.....(4)....., aspaldi erakutsi zigun Freud-ek gure kontzientzia, ustez animaliagandik guztiz bereizten .....(5)....., ez dela pieza batekoa: maila kontzientzian dabilkigun edo darabilgunaz gain, hurbileko gizartearen kode moralak .....(6)....., alderdi inkontzienteagoa ere hor dugula, sexu-senari eta botere-senari lotuagoa, presiopean egonagatik aukerarik ttipienean azalera ateratzen zaiguna.

70eko hamarkadako sekularizazio azkarraren ondotik, 1981ean onartu zen Espainiako Gorteetan lehen Dibortzio Legea. ....(7)..... zenbat banaketa eta dibor-

tzio, bai eta zenbat gizarte-aldaketa ere! Aldaketa horien eskutik etorritako egungo gizarte-errealitatera egokitu beharrean, hain zuzen, Espainian duela gutxi onartu da Dibortzio Lege berria. Horren arabera, aski izango da bikotekide batek hala nahi izatea, besterik gabe, zuzenean dibortziazteko, banaketatik igaro gabe. Haurren zaintza partekatzeko aukera ere jasoko da.

Amak haurrak zaindu eta aitak dirua etxera ekartzen duen ereduak, gure gazte denboran guztiz nagusi zena, gaur ez da hain nagusi. Gizabanakoa inguruko gizartean ia erabat urtua eta ezabatua zegoen egoerak izan .....(8)..... bere alde onak -batez ere gizonarentzat-, segurtasun psikologikoa eman diezaiokeen, hautatu beharreko zalantzak sortzen duen egonezina baretzeko baliagarri gerta zitekeen, baina egungo gizarte sekularizatuan ez du zentzurik dibortziari oztopoak .....(9).....

Zein ederra izango litzatekeen dibortziorik ez legokeen gizon eta emakumeen arteko jendarte zoriontsua, baina kontzientzia modernoak zatitua jarraitzen duen bitartean, hainbat indar kontrajarriren mende, beti .....(10).....

-----  
Pako Sodupe  
*Argia*, 1995. zkia. (moldatua eta laburtua)

— 3. testua —

1.  
a. legeak ere datoz  
b. ere legeak datoz  
c. legeak ere badatoz  
d. legeak datoz ere
- 

3.  
a. zitezen  
b. zitzaten  
c. daitezen  
d. zezaten
- 

5.  
a. diguna  
b. gaituenak  
c. gaituena  
d. digula
- 

7.  
a. handik hona  
b. hemendik aurrera  
c. artean  
d. honezkero
- 

9.  
a. jar diezazkiogunik  
b. jartzeak  
c. jarri izana  
d. jartzen dizkionik

2.  
a. egonak ziren  
b. egon ohi ziren  
c. zeuden  
d. egon ziren
- 

4.  
a. Baina  
b. Izan ere  
c. Hau da  
d. lldo beretik
- 

6.  
a. geureganatu ezik  
b. geureganatzeaz gainera  
c. geureganatuz gain  
d. geureganatzea ez ezik
- 

8.  
a. zitezkeen  
b. zezaketen  
c. zituzkeen  
d. zitzakeen
- 

10.  
a. gertatu egin dira  
bikote-hausturak  
b. bikote-hausturak  
gertatu egin dira  
c. gertatuko dira  
bikote-hausturak  
d. bikote-hausturak  
gerta egingo dira

1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-	9.-	10.-
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	------



## Irakurmena

### Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea** aukeratu behar duzu.

Idatzi aukera egokiari dagokion **letra** beheko laukietan.

— 4. testua —

### Ke arteko solasaldiak

**K**etuta daude Hegoaldeko ostalariak. Edo ostalariak biltzen dituzten erakundeetako ordezkariak. Tabako legearen kontura **kiskalita(1)**. Eta ez dut ulertzen. Arrazoi apurra izango dute, ziur. Baina Baionako ostatu batean egon eta gero, **tamainako(2)** zalaparta zertara datorren ulertezina da. Garai batean, bezeroak galduko zituztela, taberna eta jatetxeak itxi egin beharko zituztela eta, nola ez, bezero erretzaileen eskubideak **bermatu(3)** behar zirela zebiltzan. Gaur egun **oihartzuna(4)** galdu dute. Borroka ere bai.

Baionan ez dituzte tabernak itxi horregatik, ez dituzte jatetxeak itxi horregatik, baina inork ez du erretzen.

Ezta erretzaile **amorratuak (5)** ere. Eta erretzen badu, isuna, eta isuna tabernariarentzat. Amaitu dira barra gaineko hautsontziak. Legea egin eta bete.

Eta horregatik erretzaileak ez dio erretzeari utzi, are gutxiago **zurrutari (6)**. Eta jatetxeak lehen bezain huts edo beteta, prezioaren eta kalitatearen arabera. Kerik gabe. Zailago jarriko diete erretzaileei, baina amorratua denak eutsiko dio; irtengo da kalera, **irentsiko(7)** ditu ke guztiak eta itzuliko da edalontzi bila, **solasaldira (8)**. Barruan gelditzen garenok esker-tuko diogu, biriken **kontuagatik (9)** baino gehiago, biharamunean arropak izango ez duen **kiratsagatik (10)**.

Xabier Lekuona  
Berria, 2010/04/30

	A	B	C	D
1	ketuta	arduratuta	suminduta	piztuta
2	neurriko	sekulako	halako	bidezko
3	ziurtatu	urratu	gainditu	gailendu
4	zarata	erantzukizuna	durundia	eragina
5	porrokatuak	gorrotatuak	ohiak	borrokatuak
6	edanari	oihartzunari	erantzuteari	protestatzeari
7	irazekiko	xahutuko	haizatuko	xurgatuko
8	jolasaldira	partidara	berriketaldira	ostatura
9	kopuruagatik	zenbakiagatik	auziagatik	erruagatik
10	sundagatik	lurrinagatik	lausoagatik	giroagatik

1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-	9.-	10.-
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	------





## Idazmena

### Egitekoa

Jarraian, eskaintzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, artikulua bat idazteko (kontuan hartu zer eskatzen den).

### Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra ulergarria egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - eskatutakoari erantzun diozun.
  - testu egokia osatu duzun.
  - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun.
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

---

**Zirriborroetarako orria  
(Orri hau ez da zuzenduko)**



## 1. gaia

### Dopina eliteko kirolean

*90eko hamarkadaz geroztik, eliteko kirolarien artean dopin-kasu entzutetsu ugari ezagutu ditugu. Esate baterako, txirrindularitzan zein atletismoan kirol izar anitz daude susmopean, eta batzuk zigortuta ere bai. Zein da horren guztiaren erantzulea? Kirolarien garaipen-gose aseezina, kirol-enpresa edota babesleentzako etekinak lortu beharra, gizartearen arlo guztietan dagoen lehiakortasuna?*


#### Egitekoa

Albistearen gaia kontuan hartuta, informazio-aldizkari baterako **artikulua** idatzi behar duzu. Idatzi horretan, proposatutako gaiaren aurrean duzun **iritzia** azaldu behar duzu eta berau **arrazoit**.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

#### Irakurri duzun pasarteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- Dopinerako substantziak: estimulatzaileak, esteroideak, hormonak...
- Dopinak osasun-ondorio larriak eragin ditzake, baita heriotza ere.
- Kirolaren atzetik industria-sektore garrantzitsua dago.
- Dopinak muga fisikoak gainditzen laguntzen du.
- "Pasta eta txuleta" janda, nekez igo daitezke Tourreko mendateak ziztu bizian.
- Dopinak kirolaren balioak astindu ditu: esfortzua, aurkariarekiko begirunea, lehia garbia...
- Hain larria ote da arazoa?
- Zer egin daiteke?





## 2. gaia

### Zezenketak: Euskal Herrian ere debekatu?


*2012tik aurrera Katalunian zezenketak debekatzea erabaki du herrialde hartako legebiltzarrak. Herri ekimenaren bidez iritsi zen eztabaida Kataluniako Legebiltzarrerera, sustatzaileek 180.000 herritarren atxikimenduak jasota. Animaliei tratu txarrak ematea zilegi ote den izan da eztabaidaren ardatza. Animalien eskubideen aldeko zenbait taldek ekimena Euskal Herrian ere zabaltzeko asmoa dute.*

#### Egitekoa

Aurreko albistea irakurri ondoren, euskaltegiko aldizkarirako **artikulua** idatzi behar duzu. Bertan, zure iritzia adierazteaz gain, behar beste argudio eman behar dituzu, zure moduan pentsatzen ez duten ikaskideak konbentzitu nahian. Aukeran duzu **aldeko** zein **aurkako** jarrera hartzea. Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

#### Irakurri duzun pasarteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- Zezenketa: artea ala sarraskia?
- Euskal Herriko toki batzuetan, tradizio luzea: Iruñeko San Ferminak, Azpeitiko jaiak, Bilbokoak...
- Zezenketa, zenbaitentzat lanbide eta diru-iturri.
- “Zezenketak gogoko ez dituztenak ez daitezela zezen-plazara joan, eta kitto!”
- Animaliak eta tratu txarrak. Animaliek ere eskubideak dituzte.
- 2005ean Ingalaterran txakurrekin egindako azeri-ehiza debekatu zuten. Gurean, txakur eta oilar borrokak galarazita daude.
- Zezen-plazak gero eta hutsago omen daude.
- Zezenketa: margolari, musikagile eta idazle askoren inspirazio-gaia.



**Gaiaren izenburua**

5

10

15

20

25

.....  
.....  
.....  
.....

30 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

35 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

40 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

45 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

50 .....

.....  
.....  
.....  
.....

55 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

60 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

65 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

70 .....  
.....  
.....  
.....  
.....

75 .....





## HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

<b>Proba idatzia 50 Gainditzeko 25</b>	Irakurmena Idazmena	gutxienez 10 gutxienez 15	20 puntu 30 puntu	1 h inguru 1 h 30 min inguru
<b>Ahozko proba 50 Gainditzeko 25</b>	Entzumena Mintzamena	gutxienez 10 gutxienez 15	20 puntu 30 puntu	25 min inguru 10 min inguru
	<b>Guztira</b>	<b>gutxienez 50</b>	<b>100 puntu</b>	

Agiria eskuratzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzu, 25 proba bakoitzean. Ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

### **Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:**

- **EGITEKOA BETE.** Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.
- **KOHERENTZIA ETA KOHESIOA.** Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.
- **GRAMATIKA ETA LEXIKOAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA.** Gramatika-egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.